



Izar saltzailea

Ilustrazioen eta testuaren arteko loturak

TESTUA	IRUDIA	TESTUAK DAKARRENA	IRUDIAK DAKARRENA
(azala)	Pertsonaia batek kaiola eder bat du eskuetan eta kaiolan izarrak.		Azalean Xuban ageri da. Haren aurpegian ilusioa ikus daiteke, izarren saltzeko itxaropena. Izarrak haren altxorak dira.
(testurik ez)	Kaiola hutsik		Kaiolak hutsik sentiarazten duen bakartasuna. Non daude izarrak?
(testurik ez) 2.-3. or.	Lore gorriak eremu berde-gris batean, haizearen mugimendura		Lasaitasuna eta bakartasuna.
Xuban zerura begira egoten zen, orenak eta orenak. 4.-5. or.	Zeru berde-urdinean, Xuban teilatu gainean, gora begira	“Orenak eta orenak”: pertsona ameslariaren adierazpena da. Orenak pasatzea zeruari so, pentsatzen edo amesten aritzearen sinbolo gisa har liteke. Erranaldia iraganaldian idatzia da (“egoten zen”): hots, egora hori aldatu dela adierazten du.	Xuban pentsakor bere etxeko teilatuan. Ideia berritzaile baten bila dabil.
Izarrek liluraturik egoten zen, ameslari. 6.-7. or.	Zeruan izarrak. Etxeak, oihalak zintzilik, leiho batzuk zabalik, batzuk hetsirik. Antenak.	Ametsarekin eta edertasunarekin lotuak diren hiru hitz.	Hiria bizirik dago, izarrek ematen diote alaitasuna. Izarren edertasunari esker egoten da alai Xuban.
Izarrek argia piztu zioten. Sakelak betetzeko bidea marraztu ziotela iruditu zitzaion. 8.-9. or.	Leiho erdi irekia, haizeak paperak botatzen ditu. Lan mahaian bi liburu, landare bat ontzi batean, arrain gorri bat akuarioan, <i>Financial Times</i> en ale bat mahaian	Oraindik ez dakigu zehazki zer egingen duen, baina diruaren irabazteko xedea du (“sakelak bete” erran-moldea azter liteke, “dirua irabazi” adierazteko). Beste estilo literario bat: “izarrek argia piztu”. Izarrak berak argi iturri dira; eta hor “argia piztu” da, ideia bat sortzen lagundu zutela. “Bidea marraztu”, beste irudi bat da, izarren eta argiaren ideiekin osatzen dena.	Lan ordu askoren buruan, Xubanek ideia berritzailea ukan du. Logelari ikus daiteke Xubanen nortasuna: pertsona isila eta bakartia. Landarea ontzian eta arraina akuarioan, preso egotearen edo hetsirik egotearen sinbolo. <i>Financial Times</i> egunkariaren azalak erakusten du diruaren irabazteko xedea badagoela Xubanen proiektuan.

<p>Izarren saltzea bururatu zitzaion. Bakoitzak berea, bere logelan! Hura zen, hura, ametsa! Ospearen ataria!</p> <p>10.-11. or.</p>	<p>Zurubien gainetik izarrak sarez biltzen ari da Xuban, eta lurrean den kaiola izarrez betetzen. Zeruaren kolore urdin ilunaren eta lurraren gorrixkaren (mitxoletak) arteko kontrastea ageri da.</p>	<p>Esplikatzen da zer den Xubanen ideia; izarren saltzea. Lehenago izarretan ikusten zen edertasuna eta ametsa jabetza pribaturako bidea bihurtu da. Jabetza pribatuaren eta eskusibotasunaren goraiatzeta. Ametsa aipatzen da, baina oraingoan famaren biltzeko. Ametsak amesgaizto itxura hartzen duela aipa daiteke.</p>	<p>Xubanek, unerik gorenean, zerutik izarrak hartzen ditu. Lore gorriek Xubanen esperantza eta grina irudikatzen dituzte.</p>
<p>Xubanek gaitzeko negozioa zabaldu zuen. Auzoan ez zen bertze hizpiderik. Bakoitzak nahi zuen zegokion izarra, zeinek zoragarriagoa. Moda berriaren sorrera horrek dolarrak barra-barra ekarri zizkion. Eta aparrarekin, banku harraparien eskaintza erakargarriak.</p> <p>12.-13. or.</p>	<p>Haur bat pareta gibeletik so dago. "iZar" izeneko saltegia ageri da, eta izen horretako kutzak erakusleioan ("eros zure izarra"). Xuban kanpoan da, jatsaz garbitzen ari.</p>	<p>Testuaren lehen zatiak aipatzen du Xubanen negozioaren arrakasta, produktu berri batek sor dezakeen moda. Produktuaren izena "iZar" da: keinu bat iPhone, iPad eta abarri. "Ni" edo ingelesezko "I"-ri oihartzuna. Indibidualismoa goraiatzeta duen jendarteari egiten zaio erreferentzia. Testuaren bigarren zatiak dirua aipatzen du, eta dirua kudeatzen dutenak gaiztoaren rolean jartzen ditu (harrapariak). Horrez gain, azpimarratzekoa da "erre" bokalaren errepikapena: dirua soinu gogor horrekin erdiesten du. "Aparra" hitza ere azter liteke, hots, diruaren gaia azaleko zerbait dela, itsutzen gaituena. Aparra desagertzen denean, zer gelditzen ote da?</p>	<p>Xuban, itxaropenez betea, bere saltegi berriaren zaintzen ari. Saltegia azken xehetasuneraino zaindua: kutzak, pankartak, oihala... Hiriko jendeak kuriositatez eta gogoz hartzen du dendaren irekitzea.</p>
<p>Laidak ere nahi zuen halako bat, ahizparena bezalakoa. Zorigaitzez, ahizpak ez zion berea utzi nahi, izarra hortzetako eskuila bezalakoa baitzen, norberarena. 14.-15. or.</p>	<p>Bi ahizpak elkarri bizkarra emanik daude. Batak izarra dauka eskuan ongi harturik, eta bestea triste da.</p>	<p>Gauzak indibidualak izatea eta lagunekin ezin partekatzea aipatzen da testuaren zati honetan. Eta horrek sortzen duen bekaizkeria, batzuek halakorik ez dutenean.</p>	<p>Laidaren tristura ageri da, ez du ulertzen zergatik ezin den izarra partekatu. Aldi berean, Laidaren ahizpak erakusten du zein berekoi bilakatzen den jendea izarra esku artean duelarik.</p>
<p>Eltzeitsuko dirua eskuan, Laida Xubanen saltegira abiatu zen. Zegoen ederrena erosiko zukeen... aitzineko erosleak ez balu aitzindu.</p> <p>16.-17. or.</p>	<p>Laida zerura buruz so dago, eltzeitsua besapean. Zerua berde argia da. Usoak edo txoriak airean ageri dira, eta loreak Laidaren lepokoan. Etxe bat bada ezkerrean, balkoi bat, telefono kablea.</p>	<p>Izarrak ez dira merke, Laidak bere aurrezki guztiak erabili behar baititu. Eltzeitsuak erakusten du aurrezkiaren ideia, baina ez edozein aurrezki: haur edo nerabe batek bizi gehienez euroz euro osatu duen ontasuna, noizbait (...)</p>	<p>Laida, itxaropenez betea, izarraren eroztera doa. Jende guti da karrikan... non ote dira? Zeruan ez dago izarririk, usoak baizik. Laidaren lepokoan loreak orotarazten ditutze Xuban izar bila hasi zenean ageri zirenak.</p>

		(...) zerbait berezi erosteko. Hor ageri da izarrak zenbateko balioa duen Laidarentzat. Mentura adierazten duen aditz forma ("zukeen") azpimarratzekoa da: nahi zuena ez da gertatu. "Aitzineko" eta "aitzindu" hitzen arteko jokoa aipa liteke (lexikoa).	
Xubanek azken izarra saldu zuen. Ez zen gehiago bakar bat ere. Agortu ziren. Kito. 18.-19. or.	Xubanen saltegia barnetik ageri da. Xuban diruaren kontatzen ari da, eta kaiolak hutsik. Kanpoan jendea triste da, izarrak gabe dagoelako. Pankarta bat ageri da: "herritar bat, izar bat"	Erranaldi gero eta laburragoen ideia da azpimarratzekoa. "Bukatu da" errateko estilo ariketa da. Bukatze horren alde dramatikoari indarra emateko bide bat.	Izarrak gabe gelditu diren herritar guztiak Xubanen saltokiaren aitzinean daude, batzuk triste eta beste batzuk haserre. Ahalegin handia egingo dute izar bederaren erdiesteko. Xuban aberastu dela erakusten du irudiak; triste gelditu den jendearekin kontrastea.
Izarrak gabe gelditu zirenek bat nahi zutelako, izarra zutenek bertzearena gustukoago zutelako... gaizkile batzuk izarrak ebasten hasi ziren. Eta merkatu beltzean jarri zituzten salgai. Kario... 20.-21. or.	Karrika paretaz inguratua da. Dena ilun da (kolore ubela), euria ari du (bi aterki), leiho bat hetsirik da. Loreak ontzian (kaktus bat) ageri dira, eta bi pertsona elkarri izarraren ematen, urrunean, erdi gordeka, droga salduko balute bezala.	Hasierako alaitasunak eta arrakastak frustrazioei eta bekaizkeriei utzi diete lekua. Bi gisetakoak dira: gabe gelditu direnenak, eta bestearena nahiago dutenenak. Eguneroko bizitzako bekaizkeria berak. Izarra zeren metafora da? Etxearena, autoarena, telefonoarena, bikotekidearena... zerrenda nahi bezainbat luza liteke. Bigarren ideia, merkatu arruntaren mugetan oinarriturik, merkatu beltza agertzen dela (merkatu librean ez dauden produktuekin negozioa egiten dutenak: droga, baina izan liteke kontzertu bateko sarrerak, sarrerak bukatu baldin badira eta abar).	Iluntasun horretan ageri da zeruan ez dagoela gehiago izarrak. Hiria ilun dago, triste. Aterkiek eta leiho hetsiek erakusten dute tristura hori. Eta bi pertsonen arteko tratu horrek erakustera ematen du garai ilun eta legez kanpoko batean sartu direla.
Garai berean, izar bakartien argia histen hasi zen. Jabeak asaldatu ziren; ez zekiten zer egin distirak bizirik jarraitzeko. Izarrak ez itzaltzeko. 22.-23. or.	Etxe barnean, paretaren kontra, neska bat ageri da, izarra eskuan baina triste.	Hastapeneko orrialdeekin eta testuekin dago kontrastea: lehengo alaitasuna desagertu da eta tristurak hartu du lekua. Hau du adierazten: zein laster aspertzen den jendea produktu berrieekin. Bigarren ideia litzateke izarrek (metafora da, lagunena edo maite ditugun pertsonena) elkarren artean egon behar dutela	Bakoitzak izar bat eduki arren, bakartasuna hautematen da herritarrengan. Izarrek alaitasuna igortzen dute baina argia galdu eta, galdurik sentitzen dira.

		distiratzeko (hurrengo orrian ikusiko da).	
Jabea aldatzean, izarrek hasierako distira berreskuratzen zuten. Horretaz oharturik, bigarren eskuko izarren salerosketak hasi zituzten. 24.-25. or.	Kolore argiak dira, eta beroagoak. Neska bat ageri da, soineko berdez jantzia, ate handi hetsi baten paretik bizikletaz pasatzen. Paretan hainbat afixa <i>Izar</i> produktuaren iragartzen. Zinema maratoiari buruzko afixa bat.	Bi ideia: beti gauza berriak behar ditugulakoa, batetik. Izarra pertsonekin konparatuz geroz, aldiz, pertsona bat baino gehiago behar dugula inguruan, denbora guzian pertsona bakarrarekin egonez, harremana histu litekeela.	Kolore beroek berreskuratu den alaitasuna helarazten dute. Kolorez beteriko kartelak esperantza adierazten eta sentiarazten du. Hiritarrak karrikara ateratzen dira berriz, alaitasuna hauteman daiteke.
Berpizkundek ez zuen iraun. Berriz ere ilundu ziren izarrek, goibeldu aurpegiak... Zorion iragankorraren ondorioak! 26.-27. or.	Etxe barnean, emazte bat (musulmana, edo burua estalia) leiho bazterretik so dago, izarra eskuan, triste. Nahiko ilun da etxean. Laranja koloreko erridauak ageri dira, eta loreak leiho bazterreko ontzietan.	Aitzineko bi orrialdeen jarraipena da: merkatua, berrituz ere, ez da iraunkorra. Izarren pribatizazioak ez du funtzionatzen.	Hiritarrak etxean gelditzen dira berriz, triste. Etxeko iluntasunak eta landare ihartuek hiritarren emozio-egoera adierazten dute. Jendartearen aniztasuna erakusten du burua estalia duen emazteak.
Ahizpa etxetik kanpo zegoela baliatuz, Laidak haren izarra hartu eta bere logelara ekarri zuen. Han askatu zituen ahizparena eta berea. Eta biek distira biziagoz blaitu zuten etxea. 28.-29. or.	Kolore argia da. Laida ohe barnean dago, bi izarrekin. Landare berde bizi batzuk ageri dira.	Mezua hau da: izarrek ezin dira bakartu, ezin dira pertsona baten jabetza eskusibo izan. Hots, izarrek pertsonen metafora izanez, pertsonak ezin dira bazterturik atxiki. Zenbat eta pertsona gehiago elkartu edo harremanetan jarri, orduan eta hobeki doa jendarteak, eta hobeki gaude pertsona bakoitzak.	Argitasuna itzuli da izarrekin batera. Laidaren logela argiz betea da, bere alaitasunaren adierazgarri. Landareek berriz indarra hartzen dute.
Laidak izarrek zeruari itzuli zizkion. Jendearen so beltzak jasan behar izan zituen hargatik, baina biharamun arratsean, bertze bi bizilagunek haren urratsa jarraitu zuten. Lau izar iltzatu ziren zeruan. Eta ortzia argitzen hasi zen. 30.-31. or.	Planoa goitik ikusia da. Laidak izarrek airera bidaltzen ditu, ufatuz. Kolore berdexka da, eta lurra harlauzazko zirkulu arkuz estalia.	Aitzineko orrialdearen jarraipena da. Laidak ulertu du izarrek izar direla zeruan baldin badaude, elkarrekin. Legez kontrako zerbait egiten du, eta horregatik jendeak kondenatzen du ("so beltzak") baina ekintza horri esker jarraitzaile gehiago ere ukaiten du. Aipatzeko hitzak: "zeruari itzuli" (izarrek zeruarenak dira, eta hari kendu/ebatsi genizkion; naturaren goraiatzeko bat, naturari ezin diogu bere ontasuna kendu, bahitu); "izar iltzatu" (izarrek zeruaren itzeak balira bezala, izarrik gabe zerua bera buru gainera eroriko litzaigukeela, eta hori da gertatu dena izarrek desagertu direnean, jendea triste egon dela).	Hiriko plazan bakarrik, inork espero ez duen ekintzaren egiten. Laida urduri da, baina aldi berean gogotsu.

<p>Laidak talde tipia bildu zuen hastapenean. Inguruko guzien irainen gainetik jarraitu zuten Izarren Askapen Mugimenduarekin. Ez alferrik, gero eta lagun gehiago bildu baitzitzaizkien.</p> <p>32.-33. or.</p>	<p>Plano zabala da. Plaza bat ageri da, eta erdian iturria. Harri lauzazko bost lerro elkartzen dira iturri horretan (izar itxura). Bost pertsona plazan, izarren libratzen ari. Leiho ireki batzuk, eta argia ageri dira hor. Iturria ere oso argia.</p>	<p>Kausa justu baten aldeko borroka. Halakoetan, beti bada borrokatzen direnak gaitzesten dituen jendea, baina bestalde sostengua ere.</p>	<p>Laidak eta haren lagunak, isil-isilik, beren izarrek zerura buruz libratzen dituzte. Harriturik gelditzen dira izarrei begira. Izarrek libratu ondoan helarazten duten alaitasuna kutsakorra da.</p>
<p>Legearen ordezkariak oldartu ziren. Legea lege zen! Izarrek ez zitezkeen zerura itzul, beren jabea zutenez gero. Laida eta haren lagunak preso sartu zituzten.</p> <p>34.-35. or.</p>	<p>Lehen planoan, Laida poliziaren autoan dago, goibel. Gibeleda planoan, Xuban berriz izarrek sare harrapatzeri doa.</p>	<p>Legearen eta zuzentasunaren arteko kontrakotasuna. Boterea duenak eta legearen zaindarien (polizien) legea jartzen dute ororen gainetik ("legea lege"). Kasu honetan, legea da jabetza pribatua. Nahiz eta izarrek jabetza pribaturako izatea absurdoa izan, egia dioena da preso sartu dutena.</p>	<p>Kolore ilunek Laidaren tristura eta porrota adierazten dute. Xuban dagoen lekuan, berriz, zoruak argitasun puntu bat badu: Xubanen berpizkundea irudikatzen du.</p>
<p>Bukatu ziren zalapartak. Bakea itzuli zen herrira. Bake goraiatua, hain desiratua...</p> <p>36.-37. or.</p>	<p>Hiru haur izar saltokira abian dira lasterka. Plano koloretsua da, eta argia. Udaberri giroa da. Etxe bateko leihoan loreak ageri dira. Plano zabala da. Xuban saltokian ageri da, izar kutxen antolatzen ari. Proiektorez ere argitzen ditu. Pankarta bat bada kanpoan.</p>	<p>Bakeari buruzko gogoeta. Bakearen eta zuzentasunaren/justiziaren arteko lotura edo kontrastea. Azken erranaldiarekin, ironia zer den azter liteke. Hots, bakea goraiatzen dela, baina horrek ez dakarrela beti justizia edo egoera ona.</p>	<p>Alaitasun faltsua itzuli da hirira. Jendea berriz pozik dago izarrek itzuli direlako. Xuban bere saltokian dago; kutxak berriz izarrez betetzen ari dira. Aurpegian ageri zaio oso pozik dagoela.</p>
<p>Noizbait, izarrek piztu zuten tirria itzali zen. Iazardun harroak ohiko bizira itzuli ziren, tirriki-tarraka, goibel.</p> <p>38.-39. or.</p>	<p>Izarraren afixa urratu bat ageri da, haizeak eramana, egur zati batean harrapaturik. Landareak lorerik gabe daude, haizearen mende, eta txoriak airean. Plano iluna da: dekadentziaren irudia.</p>	<p>Xubanen negozio ereduaren hirugarren krisia da (ipuin klasikoaren egitura, hiru ahalegin egiten diren gisan). Denborak gauzak beren lekuan jarri ditu, eta errutinak gain hartu du berriz ("tirriki tarraka"). Izarren distirak sortzen duen poza iragankorra da (berrikuntzak sortzen duen tirria iragankorra da). Hitzak eta kontrasteak: piztu/itzali; harroak/goibel, ilusioa/tirriki-tarraka. Eta hitzen antzekotasunak: itzali/itzuli</p>	<p>Bakartasuna eta ezinegona sendi da irudi horren ikustean. Afixa urratua izanki, jakin dezakegu izarrek ez dutela ilusioa betirako segurtatzen.</p>
<p>Xuban ohartzen hasia zen mundua ilun zegoela. Ez zuen ulertzen tristura orokor hura; iZar ez ote zen, bada, zoriona ekarriko zuen produktua? (...)</p>	<p>Xuban lurrean dago, pentsakor eta triste. Leihoaren itzala ageri da, eta argiaren isla lurrean.</p>	<p>Xubanek kontzientzia hartzen du. Autokritikako tenorea. Bere buruari galderen egiteko unea. Istoriaren bihurtzea.</p>	<p>Lehen aldikotz ikusten dugu Xuban hurbiletik. Plano motz horri esker nola sentitzen den hobe ikusi dezakegu, harekiko enpatia sentitzen dugu. (...)</p>

(...) Zertan huts egin ote zuen? 40.-41. or.			(...) Leihotik sartzen den argiak bidea erakusten dio.
Xubanek egunak eta asteak iragan zituen bere burua etxeko sotoan hetsirik, erabaki zailena hoberena zela ulertu arte. Ireki zuen kutxa. 42.-43. or.	Xuban historik gabeko zuhaitz batean jarririk dago, kaiola eskuan. Kaiola zabalik da, eta izarrak zerura doaz.	Gogoetatzeko behar den denboraren sinboloa da. Pentsatzeko hartu behar zuen denbora. "Erabaki zailena" nor bere proiektu bati uko egitea da, haren kontra egitea. "Ireki" hitzak askatasunari egiten dio erreferentzia.	Zerua kolorez beterik dago, Xubanek ulertu du zer duen eginkizuna. Kaiolaren pisu sinbolikoa ageri da, eta izarrak zeruan, txorien gisan. Historik gabeko zuhaitza ere hor dago, natura hilaren sinbolo. Baina hostoberrituko da udaberrian.
Egun guti barne, Izarren Askapen Mugimenduko kideen bultzadaz lehenik, Xubanen jarraitzaileei esker ondoren, gero eta gehiago izan ziren beren izarra askatzea erabaki zutenak. Zenbat eta izar gehiago askatu, orduan eta indar gehiago zeukan jendeak. 44.-45. or.	Kolore bizi eta alaiak dira. Plano zabala da, eta jende asko (askotarikoa ere bai) ageri da izarren libratzen ari. Norbait teiltatu gainetik so dago, beste norbait leihotik.	Garaipen masiboaren eta ospakizunaren adierazpena. Hasieran gutiengoan izan daitekeen mugimendu bat, memento batetik goiti (inflexio puntua), gehiengoarena izan litekeela.	Ordura arte zeruak ez du hain urdin bizirik eduki, hiritarren alaitasuna begi bistakoa da. Jendea pozik dago, besta egiten dute.
Munduak oreka berreskuratu zuen. Ameslariak berpiztu ziren, herritar guzien gozamenerako. 46.-47. or.	Zeruan izarrak ageri dira, hiriko argi bat paretatik. Presondegiko leihotik so dago Laida. Presondegiko pareta berdea, baina pintura eta igeltsua joaten ari dira, eta adreiluak ageri dira. Xuban zurubi handi batean Laida askatzera doa.	Hastapeneko irudi baketsu eta alaiari erreferentzia. Izarrei esker berriz amets egin daiteke, eta ameslariak (proiektuak dituztenak, poetak...) aberasgarri dira herritarrentzat ("gozamenerako")	Izarrak zerutik biltzeko eskailera bera erabiliz, Laida presondegitik askatzen du. Ageri da presondegia higitzen ari dela. Zapalkuntzaren higaduraren eta askatasunaren adierazgarri.
(testurik gabe) 48.-49. or.	Izarrak, ilargia eta hodeiak ageri dira.		Zerua izarrez beterik dago, lasaitasuna heldu da behingoz hirira. Ilargia orain arte ez dugu ikusi, lehenbiziko aldiz zeruan ageri da. Lasaitasun eta zoriontasun osoak azpimarratzen ditu.
Eta zuk, izar bat nahi? 50. or.	Izar bat erdian	Galdera ironikoa, amesgaiztoaren itzuleraren mehatxua. Erantzuna hau da: "ez".	Zeruaren urdin-berde zabala eta erdian izarra, altxorra.